



GEOLODIA 16 BIZKAIA

Punta Galea eta Sopelara bitarteko kostaldea geologia irakaskuntzarentzat tresna bikaina da, izan ere, hainbat lur zientzien arloko prozesu, egitura eta material geologikoak erakusten ditu. Elementu horietako batzuk Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko inbentarioan azaltzen dira (LIG) (2013): LIG 44 K/T muga Sopelan; LIG 49 Eozenoko (GSSP) Gorrondatxen; LIG 90 Karrika – Galeako abrasio plataforma; LIG 96 hondartza zementatuta Gorrondatxe eta Tunelbocan; LIG 117 Punta Galeako sinklinala; eta LIG 132 nummulitak Punta Galea – Tunelbocan.

Geologoen zeregina datu guzti hauek biltzea da, historia geologikoa berreraikitzeo eta are garrantzitsuagoa dena, gizartean zabaltzeko asmoa. Horregatik aurtengo Geolodia 16 Bizkaia-ko ibilbide hau aukeratu dugu. Ekitaldi hau Punta Galea eta Sopela arteko ibilbideaz gozatzeko aukerarik onena da, bere historia eta eboluzio geologiko ezagutuz geologo profesionalen eskutik, gainera gure kostaldeko natura ondarea babesteko garrantzia ematen zaio.

SciGea enpresak, ikerketa geologiko eta dibulgazio zientifikoarentzako laguntza-zerbitzuak, UPV/EHUrekin elkarlanean, igandean, maiatzaren 8an egingo den Geolodia 16 Bizkaia ekitaldian parte hartzera gonbidatzen zaituzte. Geolodia publiko guztientzako jarduera libre eta irekia da. Geolodiaren helburu nagusiak parte hartzaileek "geologo begiekin" ingurunea ikustea eta prozesu geologikoak ulertzea, ondare geologikoa ezagutzea eta hau babesteko beharra ikustea eta geologoek ekarpenak eta lana ezagutzea dira. Geolodia, Espainiako Geologia Elkarte (SGE), Espainiako Geologia eta Meatze Institutu (IGME) eta Espainiako Lur Zientzien irakaskuntza Elkarteak (AEPECT) koordinatzen du eta Espainiako Zientzia eta Teknologia fundazioak (FECYT) finantzatua dago.

Hona hemen kontuan hartu beharreko datu garrantzitsu batzuk:

Eguna: maiatzak 8, igandea

Hasierako lekua: Galeako gotorlekuko aparkalekua (Punta Galea)

Ordua: 10:00

Ibilbidea: 5 kilometro

Ibileraren amaiera: Atxabiribil hondartza (Sopelana)

Aurreikusitako bukaera ordua: 17:00

Izen ematea: servicios.scigea@gmail.com web gunean, hurrengo datuekin: izen eta abizenak, harremanetarako telefonoa eta pertsona kopurua.

Edozein pertsonentzako prestatuta dagoen ibilaldia da, ez da beharrezkoa mendi ibilaldi luzeak egitera ohituta egotea. Hala ere, gomendagarria da arropa eta oinetako eroak eramatea. Nahiz eta ibilbideak ez duen inolako arriskurik erakusten, bertaratuek jardueraren arriskuak bere gain hartzen dituzte eta ondorioz antolatzaileak ekitaldiaren garapenean gertatu daitezkeen edozein kaltetik salbuesten ditu. Beraz, era berean, adin txikikoak heldu batekin joatea derrigorrezkoa da. Kontuan izanik ibilbidea arratsaldera arte luzatu daitekeela bertaratutakoek janaria eta ura eramatea gomendatzen da.

Maiatzak 8, igandea, ausartu gurekin etortzera Geolodia 16 Bizkaia eta Bizkaiko urrea aurkituko duzue....

Informazio gehiago:

http://www.sociedadgeologica.es/divulgacion_geologia_activ2016.html

www.scigea.com

https://www.youtube.com/watch?v=o-RACTfR_xU

Blanca, Irantzu, Amaia eta Jone, Geologia 16 Bizkaia antolatzaileak.